

LEZO / Liburutegiak olerki eta prosa sariak antolatu ditu

LEZO. DV. Lezoko Udal Liburutegia berriro XIV. Jon Garbizu olerki saria eta XIV. Lope Isastikoa ipuin saria antolatu ditu.

Lehiketaren oinarriak hauexek dira:

Partehartzaileak.

Lezoko biztanleak edo Lezoko Udal Liburutegiko bazkideak izango dira: ' A ' maila: 6 eta 7 urtekoak; ' B ' maila: 8 eta 9 urtekoak; ' D ' maila: 10 eta 11 urtekoak eta ' E ' maila: 12, 13 eta 14 urtekoak.

Idazlanak.

Euskaraz idatzitako olerkiak (bertsoak eta hitz jokoak barne) edo ipuinak izango dira, gai librekoak, inoiz argitara gabeak eta gehienez 3 orrialdekoak.

Aurkezpenerako baldintzak.

Azalean izenburua idatziko da. Lan bakoitzeko gutunazal itxi bat aurkeztuko da (gutunazalaren kanpoko aldean lanaren izenburua eta egilearen adina azalduko dira, eta barruko aldean helbidea, telefonoa eta izen-abizenak). Lana kanpoan joango da, eta gutunazala lanari grapaz josita. (Orrietan edo gutunazalean ikastetxearen izena dakarren lanik ez da onartuko).

Epea

Idazlanak 2007ko azaroaren 19tik 23ra (biak barne) aurkeztu behar dira Udal Liburutegian.

Antolatzaileek epaimahaia izendatuko dute eta bere epaia apelaezina izango da. Gerta daiteke sarietako edozein eman gabe uztea, aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez baldin badute.

Sariak. ' A ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (bata olerki arlorako eta bestea ipuin arlorako). ' B ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arlo bakoitzeko bana). ' D ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arlo bakoitzeko bana). ' E ' maila: liburuak erosteko 100 euroko bi bale (arlo bakoitzeko bana). Sariak Udal Liburutegian emango dira 2007ko abenduaren 14an, arratsaldeko 7:00etan.

Lanak 2008ko urtarrilaren 31 bitartean berreskuratu ahal izango dira Udal Liburutegian. Epe horretan jaso ez direnak suntsitu egingo dira.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri guzti hauek onartzen direla esan nahi du. Lanak Udal Liburutegian (Andreone. Kale Nagusia, 35 Lezo) aurkeztu behar dira, edo liburutegia.lezo@udal.gipuzkoa.net helbidera bidaliko dira.